

noaia

Zenbaki honekin batera,
#Kilometroak2015
argitalpen berezia

Urriak 11: Buruntzaldeko
Ibilbideen Eguna

Igandean, Tipi-Tapa



Aginaga, jai-giroan

www.behetik.com


**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...



behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Joan Mari Torrealdai, lotune

Hasiera ekitaldi berezi eta ezberdina izan da aurtengo #Kilometroak15 ekimene-koa. Ez zen zinta mozketarik izan, "aurten, abestiaren letrari jarraiki, eta euskararen eta ikastolen inguruan denok biltzeko nahiaren sinbolo, herritarrek eta politikariek heldutako soka" lotzeak eman zion ofizialki hasiera, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiari. Joan Mari Torrealdai izan zuen bi soka muturrak lotzeko ohorea.

Hunkituta agertu zen hasiera ekitaldiko unerik gorenean. Baita eguerdian ere. #Kilometroak15-ek Joan Mari Torrealdai omendu baitzuen. Etxekoak, Jakin Fundazioa, Ikastolen Elkarte eta Udarregi Ikastolako kideak batu zituen ekitaldian, omenduak hainbat pertsona izan zitezkeela esan zuen, eta eskerrak eman zizkien Udarregi Ikastolari eta Kilometroak 2015eko antolatzaileei berarekin gogoratzea-gatik.

Familia argazkiak atera zituzten gero: etxe-



Etxekoan, lankideen, lagunen eta Udarregi ikastolako ordezkarien babesa sentitu zuen Joan Mari Torrealdai.

koekin lehenengo, Jakineko lagunekin gero, eta Udarregiko eta Ikastolen Elkarteko ordezkarie-

kin azkenik. Txoria txori abestia kantatuz amaitu zen omenaldia.

Laburrean

1946an jaiotako kinto bazkaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean batzeko deia egin dute. Izen emateko Laurok dendarra gerturatu beharra dago, edo deitu bestela 943 363 448 telefono zenbakira. Apuntatzeko azken eguna urriaren 10a larunbata izan-goda.

1955ean jaiotako kinto afaria

Aurten 60 urte bete edo betetzear dituzten herritarren afaria urriaren 17an, iluntzeko 21:00etan hasita Atxega jauregian. Urriaren 15a baino lehen eman izena, telefono zenbakiotan: 615 760 458 (Patxi) edo 675 717 020 (Mikel).

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Azaroaren 30era arte luzatuko da A eta B gripea saihestea helburu izango duen kanpaina. 380.000 txerto prest ditu Eusko Jaurlaritzak. Anbulatorioan informazio gehiago edo 943 36 15 43 / 943 36 20 13 telefono zenbakietara deituta bestela.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaia.eus // www.noaia.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Balantzea, positiboa

Kanpoan, munduak biraka jarraitzen zuen bitartean, hemen #Gatunk orbitari kateaturik egon da jendea. Horrela pasa dituzu zuk ere azken egunak.

Luzaroan hain urruti ikusi baduzu ere, azkenean iritsi da #Kilometroak2015 egunaren biharamuna. Ajearekin, baina pozik jaiki zara. Spidifena asmatu zuenari monumentu bat egin beharko litzaiokeela pentsatu duzu, beste behin ere. Eta eldarnioan, hauts magikoa uretan disolbatzen ari zenean, bezperako flash batzuk datozkizu. Negu Gorriak eta Enrique Iglesias dantzatzen izan zinen Aitzagan. Keba, ez da posible, esango diozu zure buruari.

Gosaldu eta lanera abiatu zara. Irratia piztu duzu eta Pello Gibelalde Adegiko presidentearen hitzek zalaparta eragin dutela ulertu duzu. Joño, ze esan ote zuen ba? Lantokira iritsi, piztu duzu ordenagailua eta ia nahi gabean,

Gibelalderen perlak azaldu zaizkizu pantailan: “Guk arazo handiak ditugu balio duen jendea kanpora —demagun, Txina edo Indiara— hiruzpalau urterako bidaltzeko, eta gero kexatzen gara hemen ez dugula lekurik. Beraz, azter dezagun ea interesatzen zaigun Txinan egotea hamar urtez, edo etxean egotea, Donostian edo Gipuzkoan, bizitza osoan, gurasoekin, ezkontzea, Donostian edo inguruetan etxebizitza bat izatea. Hori ezinezkoa izango da. Eta ez dugu sinetsi nahi”. (...) “Herrialde horietara doazen mutil gazte ezkongabeak, batzuetan, ezkondu eta bertan geratzen dira. Dugun zorte bakarra da hori, bertako neskekin ezkontzen direnean ez baitira itzultzeaz kezkatzen. Bide batez, herrialde horietan neska oso ederrak daude. Eta mutilak ere bai”. Gizon honen gamelua-ren telefono zenbakia ba al du norbaitek?

Bikotearen whatsapp mezu batek ezustean harrapatu zaitu gero: “Mankell idazlea hil da”.

Aibala. Umezurtz irudikatu duzu Kurt Wallander fikziozko inspektorea. Tira, okerragoetatik osatu da Wallander. Honakoan ere, onik aterako da gizarajoa.

Beste whatsapp bat segidan. ‘KMK Irudigileak’ taldetik dator agindua: 13:00erako entregatu behar dituzu laugarren guneko bideoak. Atalluko bideo irudien kriba egiten hasi zara eta pantailan agertu zaizkizu bart gauean Aitzagan kamarero lanetan zebiltzanak, Atalluko oholtza gainean kantari. Eta ezinezko melodia bat etorri zaizu burura: *Horrelakoa da bizitza egin ezazu behar duzuna / bailar contigo, vivir contigo una noche loca*. Keba Ima, ez da posible.

Irudigileen hitzordura garaiz agertu zara eta, harritu egin zaitu jendilaje honen aldarreak. Aurpegi onez eta umorez topatu dituzu bezperan egur batean aritu ziren burkideak.

Denak batu garenean, eguneko ezustea: “drona galdu da”. Artasoro batean erori zen eta jabea bila ibili bazen ere, ez zuela

aurkitzen. “Tbili al zarete inoiz artasoro batean?”. Kalekume aurpegia ipini duzu. “Ba ez da erraza”. Berehala antolatu da brigada. Arratsalderako ipini dute hitzordua: kazetariak, argazkilariak eta kameralariak, dronaren bila. Kurt Wallanderrentzat lan erraza litzatekeela pentsatu duzu, berehalakoan topatuko lukeela, baina ez zara boz altuan esatera ausartu.

Eta bideo irudiak portatil batera deskargatzen ziren bitartean, berrikerian jarraitu duzu. Komikilariak egin du zuri burutik pasa ez zaizun galdera. Eguneko galdera: “atzoko balantzea?”. Eguraldiak lagundu ez arren, balantzea positiboa dela esan dute komunikazio arloko bi arduradunek. Ahobatez. Hori da sinkronizazioa, hori.

PD. Drona topatu dute. Eta Wallanderren laguntzarik gabe. Txikituta agertu da. Lastima. Goian bego.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue

Iritzia

Xabier Arregi: “Paregabea izan da, paregabeak zaretelako”

Igandeko Kilometroak jaia berezia izan zen. Orioko ikastolaren lekukoa jaso zuenetik, Usurbilgo Udarregi Ikastolak, eta ikastolarekin batera herri osoak egin duen lanari amaiera bikaina eman zitzaion.

Kilometroak jaia ospatzea, harrotasunerako motibo ez ezik, lana, ardura eta poza da. Urte honetan denetik izan dugu: lan asko eta zer pentsatua ere bai. Hausnartu dugu ikas-

tolak herrian izatea nahi dugun funtzioaz, etorkizuneko usurbildarrei utziko diegun herri eta jendarteaz... Aipamen berezia merezi dute parekidetasun, jasangarritasun eta inklusibitatearen lerroetan, hausnarrean eta lanean arituta eta harituta, Kilometroak jaiari beste aire bat eman dioten lagunek. Hari horri ez diote Kilometroakek eta Udarregik bakarrik heldu behar, herri osoak ere heldu behar dio, Udaletik hasita.

Urte guztiko ekintzek, ostiral eta larunbateko prestaketa lanek, egunean bertako milaka boluntarioren jarrerak harrotasunerako motiboa dira. Usurbil herri bizia dela erakutsi dugu, aktiboa, konprometitua eta solidarioa. Ideia hori eraman dute, eta horrela helarazi digute, gure herrian izan ziren hainbat lagunek.

Igandean, zailtasunei irribarrez eta lan eginez erantzuteko gai garela erakutsi genuen.

Usurbildarrok jator eta fin agertu gara, eta hori hor geratzen da, iltzatuta. Azken batean, bizitzak ematen dizkigun esperientzietatik jendearen oromena geratzen zaigu. Jende onarena gehienetan. Hori ez du haizeak eramaten.

Zorionak eta eskerrak eman besterik ez zaigu geratzen. Paregabea izan da, paregabeak zaretelako.

Xabier Arregi, alkatea



Mariaje Imaz

Zorionak eta eskerrik asko Usurbil eta usurbildarrak!

“Lotzen gaTTunk Lokarri, lixtari, sokari hari Lotu gaTTunk harira Hariketan ari Harik eta behar den artean ari, artean arin arte artean arin ari...”

... Eta kanta egia bihurtu da! Eta herria arte artean arin aritu da!

Ikastolak esker oneko hitzak besterik ez du, urte osoan zehar eta pasa den igandeko KILOMETROAK 2015 jai egunean, herritarrek, laguntzaileek eta ikastola-lagun, nahiz euskaltzale guztiak egindako lan bikaina goraiatzeko!

Kilometroetako sokari lotuz, josiz, helduz... soka luzearen txirikorda bakoitzean zuen koloretako izenak josita nola geratu diren ikusi dugu!

Ziur gaude beti ez dela erraza izan: ordutegiak moldatzea, bilera berantiarretara iristeko etxeoak antolatzea, norbaitekin haserretzea, adiskidetzeta; ikastolarako, Potxoenerako bidea korrika egitea, aste bukaera amaiezinak, autoak leporaino beteak GaTTunk arropa saltzera joatea; mon-



“Korapilo bakarra, eta hauxe hain zuzen, batu gaituena izan da!”.

MARIAJE IMAZ

“Zuek gabe ezinezkoa, zuekin, egina! Beste behin ere EZINA EKINEZ EGINA!

Lezio ederra eskutik eskura! Soka koloretsuari begiratzea besterik ez da behar! Nola eskertu jasotako guztia, emandako guztia!”

taje eta desmontaje lanak; begiak txiki-txiki egin arte ikuski-

zunak antolatzea; airean gora karpak hegan egiten ikustea! A ze arraio, haizea soka-lagun festara etorrita!

Biltegietan guztia egokiro kokatzea; denda dotore hori mimoz zaintzea, salmentak bizkortzea, ordenatzea... Gure Zozketa herriz herri, etenik gabe eramatea; guztion osasunaz arduratzea; arrisku txikiak ere aurreikustea; trafikoa antolatzea eta zaintzea; herriko bazterrak txukun-txukun uztea; egarria eta gosea asetzea;

garraioa, arraioa!, auto bat kolatu zait!

Elkar komunikatzea, animatzea, nekatzea, arnas hartzea, eskaileretan gora eta behera ibiltzea! Zerrendak osatzea, banatzea... Guztia kontrolatzea, koordinatzea!...

Guztiok izan gaTTunk soka berean!

Zenbakiak, helburuak. Jasangarritasuna. Parekidetasuna. Inklusibitatea... Eraikin berria altxata. Soka lotuta. Korapilo bakarra, eta hauxe hain zuzen, batu gaituena izan da!

Zuek gabe ezinezkoa, zuekin, egina! Beste behin ere EZINA EKINEZ EGINA!

Lezio ederra eskutik eskura! Soka koloretsuari begiratzea besterik ez da behar!

Nola eskertu jasotako guztia, emandako guztia!

Dugun herriaz harro gauden, eta gaur, lerro hauetatik, gure omenaldi xume, apala eta sentituena zuentzat doa! Eta jakizue ikastolak besoak inoiz baino zabalago dituela zuek guztientzat!

Soka ez dadila eten!

Izan gaTTunk eta izango gaTTunk! Lurra. Ura. Airea. Sua.

Zorionak eta eskerrik asko, Usurbil eta usurbildarrak!

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zubietako Herri Batzarrak bilera irekia deitu du

Urriaren 13an astearte, arratsaldeko 19:00etan Kaxkapen. Zubietari loturiko hainbat gai "potolo" jorratu nahi dira hitzorduan.

"Aurreko legegintzaldiaren amaieran aipatu bezala, herrian baditugu zenbait gai potolo, Herri Batzar kideok soilik landu ezker nahiko motz geldituko lirakeenak, eta gainera guretzako ere nahiko astunak direnak. Zubietaren Herri izaera, Eskola txikia, Alamandegi, Erraustegia...", hala adierazi dute Herri Batzarreko kideek.

Hauek guztiak bideratzeko, "bilera batera deitzen dizuegu dato-



Uztaila hasieran osatu zen Herri Batzar berria.

urriaren 13an. arratsaldeko 19:00etan Kaxkapen. Eskertuko

genuke etorri eta zuen ideiak eta kezak azaltzea".

51.855, Gure Zozketa-ko zerbaki saritua



60.000 euroko sari potoloaren zozketa egin du #Kilometroak15-ek. Zerbaki saritua: 51.855.

Ordezko zerbaki saritua: 2.689.

Ikastolen jaiak zorioneko egin duen laguna, antolatzaileekin harremanetan jartzera gonbidatzen dute:

kilometroak.eus edo 943 361 216.

Kariberako bidaiaren zozketa

Zozketa honetako zerbaki saritua 9.140 izan da. Saritua agertuko ez balitz, ordezko zerbaki saritua 7.597 izango da.

Etzekoen txanda,

Gipuzkoako Bertsolari txapelketan

Igandean Andoainen jokatu den final zortzirenetan parte hartuko dute Asier Azpiroz Iztueta zubietarrak bertsotan, eta Inaxio Usaralde Arantzadi aginagarrak aurkezle gisa. 17:30etan Bastero Kulturgunean hasiko den saioan, Antton Fernandez Lasa, Gemma Urteaga Garmendia, Ibai Esoain Arruti, Jokin Uranga Isuskiza eta Unai Gaztelumendi Arandia izango ditu lehiakide Azpirozek. Sarrerak salgai dituzue bertsosarrerak.eus atarian; 9 eurotan arruntak, 4 eurotan gazteentzat eta 6 eurotan bazkideentzat.

Dantza Taldea martxan

Zenbait talde aste hasieran ziren ekitekoak ikasturte berriari. Gainerakoek egun honetan abiatuko dute denboraldi berria:

■ Asteazkenetan:

16:30-17:30 LH1 Oiardo Kiroldegian.

19:30-21:00 Plaza dantzak Udarregi Ikastolan.

■ Ostiraletan:

16:30-17:30 LH2 Oiardo Kiroldegian.

16:45-18:15 DBH4 Udarregi Ikastolan.

19:00-20:00 LH5+DBH1 Oiardo Kiroldegian.

Oharra: saloi dantzen ikastaroa, urtariletik aurrera izango da.

Ahalduntze tailerra

"Maitasun erromantikoaren inguruko hausnarketatik abiatuz, harreman parekideak eta osasungarriak eraikitzeko giltzariak landuko dira ikastaroan".

■ Egunak: urriak 19, 26, azaroak 2, 9, 23, 30 eta abenduak 14 (astelehenak).

■ Orduetgia: 17:00-19:00.

■ Lekua: Potxoenean.

■ Irakaslea: Clara Wolfram.

■ Hizkuntza: euskaraz.

"Guraso izaten ikasten" formazio saioak

Urriaren 15etik aurrera, hilero, ekainaren 9ra arte. Orduetgia: ostegunak, 17:00 - 18:30.

■ Non: Udarregi ikastolan.

■ Nori zuzendua: 0-12 urte bitarteko seme alabak dituzten gurasoentzat.

■ Prezioa: 30 euro.

■ Izen ematea: urriak 9 arte, hitzaho@udarregi.eus

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskainet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



2015 San praixku

gehigarri berezia




Aginaga eskolako
ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!





**ONDO PASA
SAN PRAIXKUAK!**

E/S AGINAGA
N- 634 PK 7,6 AGINAGA
www.gureakzerbitzuak.com



TXAPARTEGI
harategia 



bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA · 943 361 907

José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
guarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA
 **943 36 17 35 · 656 791 277**

Kalteak handiak izan badira ere, Aginagako Eskola Txikiak ohiko jardunean segiko du



Aurreko astean eman zen ezbeharrak. Astearte honetan, udal ordezkariekin elkartu dira berriro gurasoak eta Eskola Txikiko arduradunak.

Urriaren 2an, jaiak hasi ziren egun berean gertatu zen. Garbitzailea izan zen hondaketaz jabetu zen lehena. Goizean goiz, bere lana egitera hurbildu zen eta orduan jabetu zen ezbeharrak. Gaueko euriteen ondorioz, eraikineko teilatuak amore eman zuen eta ura sartu zen Eskola Txikian. Goiko solairuko ludoteka nagusia eta bulegoa egoera kaxkarrean ziren eta azpiko hiru geletan itoginak zeuden.

Teilatua konpontzen ari ziren

Duela hilabete, gotzaintza teilatua konpontzen hasi zen. Teilatua altxata zegoen tartetik sartu zen euria, eta ludoteka nagusira, irakasleen gelara eta ikasgeletara iritsi zen. Bulegoan, sabai faltuko zenbait zati erori ziren. Sikiera ezbeharrak gauze gertatu zen, ludoteka hutsik zegoenean eta ez zen kalte pertsonalik izan. Kalte materialak soilik.

Eraikin berean segiko dute

Itoginengatik solairu kaltetue-na goikoa da noski; ludoteka ingurua. Azpiko solairuan dauden ikasgelak ez dira hain kaltetuak izan. Horregatik, klaseek ez dute etenik izango hurrengo astean. Eskola Txikiak ohiko jardunean, eraikinetik mugitu gabe segitzeko arazorik ez du izango, Usurbilgo Udaltetik adituz eman dutenez.

Eskola Txikiko ikasleek ikas-

geletan segiko dute. Eraikineko gainerako gelak baliatuko dituzte, beheko solairuko edota jubilatuek tailerretarako baliatu ohi dutena, konponketa lanak amaitu arte erabili ezingo dituzten goiko solairuko guzuzen ordez. Lanek iraun artean, segurtasuna izango da noski, bermatu eta lehenetsiko dena.

Aste gutxiren buruan, erabateko normaltasunera itzuliko direla aurreikusten dute.

Hamaiketakoa, jaiei gogotsu ekiteko

#Kilometroak15 San Praixku Egunez egokitu zenez, urriaren 4an ospatu ohi den ekitaldi-tako bat bezperara aurreratu dute aurten. Aitzakia ederra izan zuten larunbat eguerdian, urtean zehar elkarrekin askotan egoteko tarterik izaten ez duten ondoko irudietako lagunek, bildu eta hamaiketako ederra dastatzeko. Aginaga Sagardotegian prestatu eta Jai Batzordeak zerbitzaturikoarekin, bapo jan eta edan zuten jubilatuek San Praixku Bezperan. Herria igandeko #Kilometroak15 egunari begira zen arren, Aginaga sagardotegian bertan egin zen meza eta hamaiketakoarekin lekua egiten hasi ziren, ekitaldiz bete datorren asteburu luzeari.



Aginaga Sagardotegian prestatu eta Jai Batzordeak zerbitzatu zuen hamaiketakoa.

Larunbatean trainerilla txapelketak, arraun sasoi agurtzeko

Hitzordu klasikoan bilakatu da jada. Galdu ezin den horietako ekitaldia, eta udalerrri honen ondareari begira, txoko ezin ederra goan ospatzen dena. Errioa eta erriberak, Oria ibaia Aginagako jaien erdigunean kokatuko da larunbatean, San Praixkuetako trainerila txapelketekin.

Guztira 10 talde datoz aurtengoan; 4 emakumezkoen txapelketan lehiatzera, gainerrako seiak gizonezkoen txapelketan parte hartzeko. Aipatzena arraunlarien ahalegina. Berez atsedean asteak baitira honakoak. Iraileko bigarren hamabostalditik aurrera, batzuk lehenago besteak beranduxea go amaitzen dute estropaden denboraldia. Opor garaia dute honakoa, azaroan berriz entrenatzen hasi aurretik.

Baina aurten ere Aginagako festetako txapelketan parte hartzera animatu dira, eta badute meritua. Emakumezkoetan, aipatu moduan 4 talde arituko dira lehiari urriaren 10ean. Kontxako Banderako txapeldu-



Gizonezkoen arteko txapelketan, Aginagak talde propioa izango du beste behin ere.

nak, eta neurketa preziatuena irabazteko lehiari buru-belarri jardun zuten taldeak datoz Aginagara. Gizonezkoetan Urola-Kostako ordezkariak zabalak, etxekoekin batera. Aurten ere aginagarrak bandera irabazten ahaleginduko dira berriz. Oria ertza beste behin, maila bikaineko arraun-gune handian bilakatuko da.

Arraun festa

- Eguna: urriak 10, larunbata.
- Ordua: 15:30.
- Tokia: Aginagan, Oria ibaian.
- III. Emakumezkoen Trainerila Txapelketan: Orio, Getaria, San Juan, Hibaika.
- IX. Gizonezkoen Trainerila Txapelketan: Orio, Aia, Zarautz, Donostia, Hondarribia eta Agiña.

Ikastaroak Aginagan

- Euskal Dantzak (5 urtetik aurrera): Asteazkenetan 17:00-18:00.
 - Pintura haurrentzat: Ostirala 17:00-18:30.
 - Yoga helduak: Asteartea 14:30-16:00.
 - Yoga haurrak: Asteartea 17:00-17:45.
- Izenematea: aginaga@eskolatxikiak.org
San Praixku guraso elkarte.

Jaien azken egunean, elkar desafioka

Belaunaldi arteko aginagarrak aurrez aurre beste behin jaietan. Halakoetan esan ohi den moduan, beterranoen esperientzia eta gazteen freskotetasuna nahastuko dira, eta ia norgehiagokan zeintzuk nagusitzen diren. Aurreko edizioak gertutik jarraitu dituenak gogoan izango duen moduan; ez batzuk ez besteek ez dute amore emango, jaien amaierarako iragarri den kirol festa herrikoian.



Astelehenean, jaien azken egunean arituko dira frontoian, 18:00etan hasita.

- Eguna: urriak 12, astelehena.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Aginagako Ariztitxo pilotalekua.
- Probak bi itzulietara: lokotsak (jarri eta gero bildu), txingak, ingudea, ergometroa, bizikleta, arto aletzea, sagar biltzea, zaku lasterketa, trontza, soka tira.
- Taldeak: hamabi lagunekoak.

Eiza denda

Ondo pasa
SAN PRAIXKUAK!

Erribera 8, Aginaga
943 36 12 06

ATXEGA
Arrainak eta Itsaskiak

Ondo pasa
San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

ETXEBESTE
Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

943 36 27 40

Ondo pasa
San Praixkuetan!

KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24h hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.nautikamutika.com - info@nautikamutika.com

Asteburu luze bat aurretik

Urriak 9, ostirala:

Umeen Eguna

■ 10:00 Umeen jolasak frontoian.

■ 12:00 Haur eta helduen artean mural zoragarriaren pintaketa.

■ 13:00 Haurrentzat bazkaria. Arratsaldean puzgarriak plazan, txokolatada eta buru-haundi bizi-biziak.

■ 19:00 Gazte eta heldu dantzan jartzeko saioa frontoian MartxanGO taldearen eskutik.

■ 21:00 Bertso Afaria Eliza Zarrean. Bertsolariak: Agin Rezola eta Eli Pagola.

■ 01:00 Erromeria Eliza Zarrean Erokomeriren eskutik.

Urriak 10, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera.

■ 15:30 III. Emakumezkoen trainerilla txapelketa eta



Larunbat gauetz arituko da Gozategi taldea, Skasti taldearekin batera.

IX. Gizonezkoen trainerilla txapelketa.

■ 00:30 Kontzertuak frontoian: Gozategi eta Skasti.

■ 04:30 Eliza Zaharrean Aros DJ.

Urriak 11, igandea:

Gora Herria Eguna

■ 16:00 XXXV. Mus Txapel-

keta Herrikoia (inskripzioa 15:30 ireki, eta 16:00 itxi. Bikotekide batek aginagatarra izan behar du).

■ 18:00 Leizarango Poniyo (Itziar) eta buruhandiak plazan.

■ 21:00 Herri Afaria frontoian.

■ 01:00 Dantzaldia frontoian

Itzarturen eskutik.

■ 04:00 Gurru DJ Eliza Zarrean.

Urriak 12, astelehena

■ 18:00 Helduek gazteei erronka! herriko gazte eta helduen arteko lehia.

■ 19:30 Sardina eta sagardo banaketa herriko plazan, trikitilariak girotua.

Bitartean, XXXIII. Toka Txapelketa Herrikoia.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Oharrak:

■ Urriaren 9ko Bertso Afariarako txartelak, 15 eurotan izango dira salgai Aitzagan, Arrate Egoitzan eta Sekañan.

■ Herri afarirako txartelak 20 euro (helduak) eta 15 euro (haurrak) izango dira. Salgai: Aitzagan, Arrate Egoitzan eta Sekañan.

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugun posible

Astekaria, noaua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!





Ondo pasa
San Praixkutan!

Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZO BIBEROAK

INTERNATIONAL
STANDARDS
ISO 9001
FACE
Nº 004508

MAYULAS
frescas

Mayoz S.L.
ANGULA
llo con gambas

gelado

200g e

125g e

CONSERVAVILA 4°C

TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94



aginaga

San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia

**HOTEL BERRIA
AGINAGAN**

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela
kompletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarritz (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobea.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *

URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!

Berezitasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com



JATETXEA

- EGUNEKO MENUA • ASTEBURUKO MENUA
- MENU EXEKUTIBOA • KARTA
- EKITALDIK (EZKONTZAK, BATAIOAK..)
- ITSASKI ETA ARRAINETAN BEREZITASUNA
- MARISKADAK • PAK BEREZIAK (GASTRONOMIA + TALASO + GAUA)



Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik!

tren eta autobus

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna igandean

Andoain, Lasarte, Urnieta eta Usurbil lotzen dituen bide sarea ezagutzeko eta bi-deotatik paseatzeko aukera aparta igandean ospatuko den 8. Buruntzaldeko Ibilbideen Egunean. Bideok ezagutu eta bailarako paisaia eta txokoez gozatzeko gonbita luzatzen digute eskualdeko udalek beste behin urriaren 11, goizez, 09:00-14:00 artean. Amaieran, itzultzeko autobus zerbitzua izango da.

Aukeran dauden ibilbideak hauek dira:

- Andoain-Lasarte-Oria: 7,9 km
- Andoain-Urnieta: 4,8 km
- Andoain-Usurbil: 14,9 km
- Lasarte-Oria-Urnieta: 3,9 km
- Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga: 9



Zortzigarren edizioa beteko da aurtten.

km Santuenean barrena, Aginagako Mapil ingururaino. Oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Usurbilen guneak Mapil inguruan eta Santueneko Zorrotzeko zubi pa-

rean jarriko dira.

Bukaeran autobus zerbitzua izango da norbera abiatu den herrira itzultzeko. Horretarako txartela zigitatua aurkeztu beharko da.

Merkealdiak, berriz ireki duten Gattunk Dendan

Urriaren 1ean itxi zuten dendak asteartean zabaldu zuten berriz, biltegian geratzen zaien #Kilometroak15-en materiala saltzeko. Prezio erakargarrietan eskuragarri jarri dute Gattunk markako arropa eta osagarriak. Produktu gehienak 5-15 euro artean eskura ditzakezue, datozen asteotan, ordutegi honetan: Astelehentik ostiralera, 17:00-20:00. Larunbatetan, 10:30-13:00.

Helburua beteta

Urtean zehar izan duten salmentak emaitza bikainen parekoa izan zen igandeko jaialdia ere. Hiru



guneetan postu bana jarri eta etenik gabe lanean jardun zuen hogeit laguneko boluntario taldeak. Ezusteko bakarra eguerdi parteko eguraldiak eman zuen Txaragañan. Bertako postua bildu eta beste ikastolara lekuz al-

datu behar izan zuten. Ezusteko hau salbu, oso pozik dira urriaren 4ko jaialdiko salmenta emaitzeekin beste behin, #Kilometroak15 arroparen salmentaz arduratzen diren batzordeko kideak. Finkatua zuten helburua bete dute.

Eskubaloia Kiroldegian

Urriak 10, larunbata

12:00 Kadete neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E. "B"-Pulpo

16:00 Senior neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Allerru

17:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.- Bidasoa Irun

19:30 Jubenil mutilak Euskal Liga: Usurbil K.E. - Bidasoa Irun

Usurbil K.E.-ren

zuzendaritza berritzeko hauteskunde prozesua

2016 urte hasierarako zuzendaritza berritzeko hauteskunde prozesuan murgildua dago Usurbil K.E. Urriaren 13ra arte zabalik dago, hauteskunde batzordea osatzeko bolondresen hautagaitzak aurkezteko epea. Aurkezturiko hautagaiak urriaren 14an bildu eta behin behinako hauteskunde batzordea osatuko dute. Segidan, urriaren 28ra arte hauteskunde batzordeari alegazioak aurkezteko epea irekiko dute. Hautagairik ezean, Usurbil K.E.-ko idazkariak Hauteskunde Batzordeko funtzioak egingo ditu.

Zubieta, Endika Abril

Txapelketako finalean

Eta final handia etxean, Zubietako erreboten plazan jokatu dute, igande honetan, urriak 11, goizeko 11:00etan hasita, Donibane Lohitzuneko Luzean taldekoen aurka. Irailaren 27an, Villabonan Endaiarrak taldekoei 13-7 irabazi ostean heldu dira zubietarrak Endika Abril Txapelketako azken txanpara.

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Patria Jateak
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ETXEBIZITZA**Salgai**

Txaramunto kalean etxebizitza salgai. Hegomendebaldera begira. 98 m² + balkoia, egongela/jangela eta sukalde. 3 gela. 2 komun. Garaiea eta trastelekua aukeran. Iker (686912979)

Pisua salgai kaxkoan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. Altzariek. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

Atikoa Zubietan, 110m² erabilgarri. 2008-an guztiz berritua, teilatuaen estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m²-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukalde, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosi nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariek) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbi-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

de-pasagunearen ondoan. 56m²: Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokatzeko pisu bila nabil. Telefono zenbakia: 615730680

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. Altzariek. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Tlf: 670070562.

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpoaldera. 630 713 583.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo

alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Usurbildar bat behar dugu astelehenetik ostiralera, haur bat ikastolara eta bestea Haur Eskolara eraman, eta etxeko lanak egiteko. 629 931 375 (Joxean), 679 709 331 (Kris).

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatekxeren batean harraskako garbiketaket egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak

ditu. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomidio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketetan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiten eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

**Zorionak aitaxi eta amatxi!**

Dagoeneko 60 urte ezkondu zinetela! Ez da marka txarra e? Ba merezi bezala ospatuko dugu!! Gu guztiontzako eredu paregabeak zarete inolako dudarik gabe!! Muxu bana, familia osoaren partez.

Heriotzak**Maritxu Azurmendi Intxauspe**

86 urterekin hil zen
urriaren 2an, Usurbilen

**José Luis Perales Pinero**

52 urterekin hil zen
urriaren 5ean, Usurbilen



OHARRA: Urriaren 16an aterako dugu hurrengo NOAUA! astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urriak 12 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezindua edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketara... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filozofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelak. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketara... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukaldaritzan, garbiketara, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketara lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prententzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketara lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketara lanak egiteko edo pertsona helduak eta

haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketara lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen,

garbiketara eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketara industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketara lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldaritzan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailaren 9an, arratsaldean, Zubietako Lertxundi gainan aurkitu ditut betaurreko batzuk. Berreskuratzeko deitu Euxebiori: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzeekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larrukoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubietako edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelhectic ostirala: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 09 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 10 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Igandea 11 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Astlehena 12 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Asteartea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Urriak 08 - urriak 18

Osteguna 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Agenda urria

09 ostirala

- Aginagako Festak. Ikus gehigarria.
- "The True Cost" film-dokumentala eta "Emakume jostunen baldintzak" hitzaldia. 18:00etan Sutegin.

10 larunbata

- Aginagako Festak. Ikus gehigarria.

11 igandea

- Aginagako Festak. Ikus gehigarria.
- Tipi-Tapa, 15:00ak arte.
- Organo kontzertua Salvatore elizan, 18:00etan. Stephen Kagl-en eskutik.

Onddoak, igandeko Tipi-Tapan



Aurrerantzean, hilabeteko bigarren igandean ospatuko da Tipi-Tapa.

Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan onddoekin sukaldaturiko zizka-mizka bereziak dastatzeko aukera izango dugu igandean. Gogoan izan, Tipi-Tapa hilabe-

te bakoitzeko bigarren igandean ospatuko dela aurten. Aldatuko ez direnak sariak izango dira. 150 euroko erosketa balea eta bi lagunentzako afaria zozketatuko dituzte hilabetero.

Stephen Kaglen organo kontzertua

Usurbilgo Organoaren Lagunak taldekoek antolatuta, kontzertua igandean, urriaren 11n 18:00etan Salvatore Elizan. Stephen Kagl organista alemaniarra gonbidatu dute Usurbila.

Larunbat honetan, 80 urtekoei omenaldia

Gure Pakea Elkarteak antolatuta: 12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Atxega Jauregian omendu, eta hauen senide eta lagunentzat. Izen emate itxita dago honez gero.

Datozenak

Datorren astean, Uharte-Arakil-Goldaraz mendi irteera

Urriaren 18rako antolatu duen irteera honetarako izen ematea zabaldu du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak.

Urriak 18, igandea

- Ibilbidea: Uharte Arakil-Goldaraz (20 km).
 - Abiatzeko hitzordua: 07:00, Oiardon.
 - Joan etorria: autobusez.
 - Izen ematea: 12 euroko ordainketa egin urriaren 14a baino lehen, Andatza M.K.T.-ren kontuotako batean:
 - 2095 5069 0710 6848 9805 (Kutxabank)
 - 3008 0259 1630 0543 0321 (Rural Kutxa)
 - Oharrak:
 - Plaza mugatuak.
 - Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.
 - Janaria norberak eraman behar du.
 - Edaria Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak eramango du.
- Informazio gehiago: andatza.com
Antolatzailea: Andatza M.K.T.



20 kilometroko ibilbidea osatuko dute.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ELORZA

OBRAKETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

G Auto Guria s.l



Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL



Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:
(prezioak sesio bakoitzeko)

EMAKUMEETAN:

Hanka osoak 149€ / Hanka erdiak 99€ / Izterrak 132€ / Izter erdiak 102€
Besoak 79€ / Besaurreak 69€ / Kokotsa + ezpaina 39€
hanka osoak + Ingleak (bikini) 199€
hanka osoak + besapeak 179€
Ingleak (bikini) 50€ (Pubisa edo Brasildarra) 60€ Ingleak (osoa) 75€
hanka erdiak + Ingleak (bikini) 149€ / hankaerdiak + besapeak 129€

GIZONETAN:

Sorbalda 99€
Sorbalda + besaburuak 129€
Sabelaldea + toraxa 153€
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€
Besoak 99€ / Besaurreak 89€
Ipurmasailak 79€

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

guztiok g!onk

LAGUNTZAILEA

ikastolen
kmk

**Lanean haritu zaretanoi,
bisitan etorri zaretanoi,
Usurbilgo herriari.**

Zorionak eta eskerrik asko.



Usurbilgo Urtalea